

“IKASTETXEKLIK” GARATZEKO ETA FINANTZATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA

BILDURIK:

Alde batetik, Gizabidea Fundazioa -helbidea: Zarugalde kalea 30, 20500 Oñati; IFK: G20089009-, ekitaldi honetan Aritz Otxandiano Kanpok ordezkaria -NAN: 78.896.883-Y-, zuzendaria den heinean,

Bestetik, Oñatiko Udala - helbidea: Foruen Enparantza 1, 20560 Oñati; IFZ: P2006300D -, ekitaldi honetan Izaro Elorza Arregi ordezkaria - NAN: 15396342G -, Alkatea den heinean,

PARTE HARTZEN DUTE

Aritz Otxandiano Kanpo GIZABIDEA Fundazioaren ordezkari gisa,

Izaro Elorza Arregi andreak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (LBRL) 124.4.a) artikulua Udalaren ordezkari izateko ematen dion legezko gaitasuna erabiliz, zeina Alkate izendatua izan zen 2019-06-15eko eratze Osoko Bilkuran

AZALTZEN DUTE:

- I. Europako Batzordeak gidatzen du hirien deskarbonizazioa, hiriak direlarik emisioen iturburu nagusietako bat, biztanleen, jardueren eta kompetentzien kontzentrazioaren ondorioz.
- II. Kalkuluen arabera, 2050erako Europako emisioen ia %80k zuzenean hirietan edo hiriei lotutako jardueretan izango dute jatorria.

EBren Itun Berdearen (Green Deal) asmoa da, 2050ean, Europa karbonoan neutroa izango den lehen kontinentea bihurtzea, baina erronka hori hazkunderako estrategia berri gisa bideratuz, kontsumitzen duena baino gehiago emateko estrategia gisa. Bitarteko mugari gisa, 2030. urterako emisioak %55 murriztea aurreikusten da. Helburu hori betetzeko, "Fit for 55" multzoa ezarri da, zeinean, beste neurri batzuen artean, ezartzen baita elektrizitatearen %65 iturri berriztagarrietatik etorri behar dela 2030erako, eta, horretarako, 500 GW-etik gorako ahalmena izango duten berriztagarriak instalatu behar dira EBn (egungo ahalmen berriztagarria halako bi inguru).

Hirien eta udalerrien esparruan, Batzordeak "Klima eta Energiarako Alkateen Ituna" abiarazi zuen, 2020rako helburuak lortzeko hain harrera ona izan zuen Alkateen Itunaren ekimenaren jarraipen gisa (10.000 inguru Europan, eta horietatik ia 1.900 Espainiakoak dira eta 20 EAEkoak: hiru hiriburuez gain, Irun, Tolosa, Oñati, Hondarribia, Basauri, Portugalete, Usurbil eta abar daude). Itun berriak (Mayor 's Adapt) 2030erako ezartzen duen helburua da Berotegi Efectuko Gasak %40 murriztea, energia efizientzia %27 handitzea eta iturri berriztagarrietatik sortutako energia %27 izatea. Helburu horiek espezifikoak dira PACESi atxikitzen zaizkion hirientzat.

- III. Horrez gain, "hiri adimentsu eta klimatikoki neutroen" misioa ere abiatu da, 2030erako kliman neutroak diren ehun hiri lortzea helburuarekin.

Estatuko esparrua (PNIEC):

Azpimarratzekoa da 2021eko martxoaren 16an onartu zen Energia eta Klima Plan Nazional Integratu berriak (PNIEC 2021-2030) helburu hauek ezartzen dituela:

- BEG emisioen %23ko murrizketa 1990eko datuekin alderatuta
- Energiaren azken erabileraren %42 berriztagarriak izatea
- Efizientzia energetikoa %39,5 hobetzea
- Sorkuntza elektrikoan %74 energia berriztagarria izatea.

Helburu horien helburua da 2050ean ekonomia deskarbonizatzea, hau da, 1990arekin alderatuta, BEGen guztizko emisio gordinak gutxienez %90 murriztea. Gainera, %100 berriztagarria den sistema elektriko bat lortu nahi da data horretarako.

Mugikortasunean aldaketa modal bat aurreikusten da, gaur egun errekuntzako ibilgailu arruntetan egiten diren kilometro eta bidaiarien %35i eragingo diena (2023rako emisio txikiko eremuak), eta 2030ean 5 milioi ibilgailu elektrikorara iristea ere aurreikusten da. Beranduezez, 2040rako ibilgailu berri guztiak 0gCO₂/km izango dira.

Gutxienez eraikuntza parke publikoaren %3 berritzea aurreikusten da, Energia Efizientziari buruzko Zuzentarauaren arabera.

Lan ildo gisa, garraioaren eta berokuntzaren elektrifikazioa hartzen da emisioak murriztea lortzeko eremu nagusizat.

Esparru autonomikoa (EAE):

EAEko Klima Aldaketaren Estrategia, KLIMA 2050:

Euskal Autonomia Erkidegoko KLIMA 2050 Estrategiak helburu hau du 2030erako: berotegi efektuko gasen emisioak %40 murriztea 2005. urtearekin alderatuta, eta %80 murriztea 2050. urterako. Halaber, azken kontsumoarekiko, 2050ean energia kontsumoaren %40 berriztagarria izatea espero da. Ildo honetan Urban Klima 2050 proiektua azpimarratu behar da, klima aldaketara egokitzeko 40 proiektu eta ekintza koordinatuko dituen, 6 urteko iraupenean.

3E2030 Euskadiko Energia Estrategia:

Dokumentu honek 2030erako energia sektorerako helburu nagusiak jasotzen ditu, eredu sozioekonomikoaren bilakaera progresibo bat kontuan hartuta, batez ere industriari, eraikinei eta garraioari dagokienez, energia berriztagarriak progresiboki sartuz, sistemaren efizientzia handiagoa lortuz, eta energia elektrikoaren energia bektore nagusizat hartuz.

Dokumentuak, helburu espezifikoek gain, hainbat arlotako helburu zehatzak dituzten jarduera lerroak ere jasotzen ditu.

2021-2024 Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Plana:

2021eko urrian onartuta, helburuak dira BEGen emisioak %30 murriztea, energia berriztagarrien kuota azken energia kontsumoaren %20ra arte igotzea eta euskal lurraldean klima aldaketarekiko erresilientzia ziurtatzea.

Jasangarritasunaren 4/2019 Legea:

Administrazio publiko guztiak behartzen ditu (udal administrazioak barne) neurri jakin batzuk hartzera, besteak beste:

- Eraikinen %40ren kalifikazioa energetikoa hobetzea (2030)
- Eraikin berrien eta eraberritze integrala egiten zaien eraikinen energia kontsumoa ia nulua izatea lortu beharko da (derrigorrezkoa 2018ko abendutik aurrera)
- Eraikinen kontsumoaren %32ko kuota lortzea energia berriztagarri propioekin hornituta (2030)
- Ibilgailu guztiak ordezeko erregaien bidez propulstaztea.

Baina, sektore publikoa ez ezik, sektore pribatua ere behartzen du, eta sektore publikoari hori betearazteko eskakizuna ezartzen dio. Adibidez, industria sektorean energia auditoriak egiteko derrigortasuna, mugikortasun planak, hidrokarbuero likidoak ezabatzea, etab.

- IV. Debagoiena eskualdeko hainbat udalerrri, erakunde publiko eta eragile nagusiak (Debagoieneko Mankomunitatea, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, FAGOR S.COOP., Ulma Talde Kooperatiboa, Mondragon COOP, Goiena Komunikazio Taldea Koop. Elkarte, Garaia Parke Teknologikoa Koop Elkarte, Saiolan SA eta Agirre Lehendakaria Fundazioa) "Debagoieneko Berrikuntza Irekiko Plataforma" proiektuaren ingurura bildu ziren (gaur egun, "Debagoiena 2030"), lankidetza tresna gisa eratuta. Lehen bilera gobernu batzorde baten bidez egin zen, 2019ko urtarrilaren 16an, batzordea goi organo gisa eratu zelarik, proiektuaren bide nagusiak definitzeko ardurarekin.

Lehen saio hartan, plataformaren aurkezpena egin zen, eta etorkizuneko "D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA" definituko zuten ildo nagusiak aurreratu ziren, hainbat alderdi azalduz, hala nola sektoreen arteko lankidetzarako bitartekoak, sarea ezartzeko metodologia, plataformaren lau foku nagusiak (Iraunkortasuna eta energia, Lanaren etorkizuna, Aukera berdintasuna eta Hezkuntza), besteak beste.

Aurrekoarekin batera, bulego teknikoaren sorrera eta funtzioak azaldu ziren, eta dinamizatzaile eta bultzatzailearen rola GIZABIDEA FUNDAZIOARI esleitu zitzaion, erakunde egokiena zelako lan hori egiteko, berez duen ezagutzagatik eta funtzionamenduagatik.

- V. Lankidetza testuinguru horretan, aurreko puntuan aipatutako erakundeek "D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA" sinatu zuten 2020ko uztailaren 22an, eta hitzarmena sinatzeko konpromisoa hartu zuten, "D2030 Garapen Iraunkorreako Sarea" bultzatzeko.

Sinatutako proiektuaren erronka nagusia da Debagoiena eskualdearen trantsizio jasangarria egitea, erakunde publikoen, eragile ekonomikoen, ezagutzaren eragileen eta gizarte eragileen arteko lankidetza mekanismoen bidez, eskualdearen egungo egoeraren diagnostiko bat eginez eta agenda partekatatu bat definituz, etorkizunean planteatzen diren erronka askotariko eta konplexuei irtenbidea emateko. Ildo horretan, proiektu bateratuaren ikuspegiaren abiapuntua da ingurunearen garapen komunitarioan sakontzea, 2050erako eskualde adimendun, inklusibo eta klimatikoki neutroa lortzeko.

Horretarako, proiektuaren ardatza erantzun komunitario eta eraldatzaile propioa sustatzea da, Debagoiena eskualdean XXI. mendean dauden erronka globalei erantzuteko, pertsonen ikusmoldeetan eta balioetan eragiten duten eragileen eta pertsona partikularren arteko loturak gauzatuz, erronka horiei eman beharreko erantzunean eragin nabarmena izango duten ekimen eta proiektu berritzaileak sustatuz.

- VI. 2020ko irailean, D2030 Gobernu Batzordeak eskualdean energia trantsizioa bultzatzeko prozesu bat sustatzeko ekimena onartu zuen. Prozesuaren helburua da eskualdeko eragileen artean energiak planteatzen duen erronka aztertzea eta lankidetzan oinarritutako hainbat ekintza diseinatzea eta garatzea (“portfolioa”). Bederatzi hilabetez eskualdearen erronka energetikoa aztertzen eta eragileekin aukerak definitzen aritu ondoren, 2021eko uztaileko D2030eko Gobernu Batzordeari eskualdeko eragileen artean adostutako proiektuen zerrenda bat aurkeztu zitzaion.

Energia Portfolioan egin beharreko proiektuen artean “IKASTETXEKLIK” dago. Ikastetxeetan energiaren aurrezki eta eraginkortasuna sustatzea du helburu, hezkuntza komunitate osoarekiko lankidetzaren bidez eta parte hartze aktiboan oinarrituta. Balio pedagogiko handiko tresna da, pertsonen parte hartzean oinarritua eta ahalduz oinarritua. Egokia da kultura berri baten balioak barneratzeko, energia eta ur kontsumoak optimizatzeko, aurrezki ekonomiko handiak lortzeko eta ingurumen inpaktuak nabarmen murrizteko.

- Aurrezkiaren %50 ikastetxera itzultzen da zuzeneko dirulaguntza gisa, eta gainerako %50 ikastetxean bertan inbertitzen da energia aurrezteko, eraginkortasunez erabiltzeko eta energia berriztagarriak instalatzeko. Horri esker, "etengabeko hobekuntzaren zirkulu bertutetsua" ezar daiteke, hurrengo urteetan aurrezki gehiago sortzeko.
- Prozesua hezkuntza-komunitate osoaren jabeak eta parte hartzean oinarritzen da. Energia taldeak aldi aldi egiten dituen bileretan, aurrezteko eta eraginkortasunez
- Erabiltzeko neurriak hartzea proposatzen da, eta bilera horiek teknikarien aholkularitza izango dute.
- Hezkuntza komunitateak berak, eta batez ere, urtean zehar aurrezkiak lortzeko lan egiten duen taldeak, adostasunez erabakitzen du jasotako funtsen norakoa, eta horrek are gehiago motibatzen ditu inplikaturako pertsonak.
- Aurrezkiak urte anitzeko batezbestekoen arabera kalkulatu dira. Beraz, epe ertain eta luzeko mozkinak bermatzen dira, urtebetean lortutako aurrezkiak hurrengoetara luzatzen baitira.
- Eskolako Zuzendaritzak emaitzekin, gardentasunarekin, partehartzearekin eta entzute aktiboarekin benetako konpromisoa eta lan sistematikoa egiten du. Abiapuntuak zuzenak erabiltzen dira eta horien kontrol zehatza egiten da.

Proiektu horretarako EKOOren lankidetzaren proposamena aurkeztu da. Horren arabera, 42.540,97 euro inbertituko dira, BEZ barne.

- VII. GIZABIDEA fundazioa (aurrerantzean, GIZABIDEA) nortasun juridiko propioa duen eta gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duen fundazioa da, baita beste erakunde batzuekin beren helburuak betetzeko lankidetzak akordio aldean izenpetzeko ere.

GIZABIDEAREN Fundazio Estatutuaren 6. artikulua arabera, helburua da Hezkuntza sustatzea, irabazi asmorik gabe, eta, bereziki, pertsonen eta gizartearen ikerketa eta prestakuntza teknologikoa, modu progresiboan **eraldaketa sozioekonomikoa egiteko, komunitatearen premien eta aukeren bilakaerarekin bat etorriz.**

Halaber, GIZABIDEA baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak orientatzera eta optimizatzera bideratutako erakunde bat da, baliabide horiek ikerketaren arloko helburuak lortzera bideratuz, ikerketatzat hartuta «*Etorkizuneko jardueren eta bizimoduaren eta lan moldeen prospekzioa*», baita beste berrikuntza batzuk ere, berrikuntza sozialeko prozesuetan parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzak eta koordinazioa sustatuz (publikoak, kooperatiboak, pribatuak, sozialak, akademikoak...).

Eguneko koiunturan eremu horiek behar bezala bultzatzea eta helburuak eta xedeak Debagoieneko komunitatearen onurarako proiektuetan gauzatzea beharrezkoa dela jakitun, “Debagoieneko Berrikuntza Irekiko Plataformak” bere gain hartu zuen dinamizatzaile eta bultzatzaile izateko rola, berez dituen ezagutza eta funtzionamenduaren ondorioz erakunderik egokiena delakoan, eta horrela onartu zuen plataformaren Gobernu Batzordeak 2019ko urtarrilaren 16an egindako bileran.

Rola bere gain hartuta, GIZABIDEAK konpromisoa hartu zuen “D2030 Garapen Iraunkorreako Sarea” bultzatzeko, bere konpromisoaren artean egonik «*Beste eragile batzuk aktiboki inplikatzeko, proiektuaren garapena ahalbidetzeko duten konexioak sortuz*», kontuan hartuta hitzarmena “IKASTETXEKLIK” proiektua garatzera bideratuta dagoela, GIZABIDEAREN beraren helburuekin bat datorrela eta, plataformaren dinamizatzailea den heinean, hartu dituen funtzioak betetzera zuzentzen dela.

- VIII. 2022-10-11ko Alkate-Dekretuz onartu zen 2023-2026ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa

- IX. Halaber, **Oñatiko Udala izan zen “D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENARI” atxiki zitzaizkion erakundeetako bat, 2022ko uztailaren 22an** . Aipatutako hitzarmenaren bigarren klausularen arabera, erakunde bultzatzaileek hainbat konpromiso hartu zituzten, horien artean egonik «*Norbere erakundearen estrategia eta proiektuak D2030ekin konektatzea*», baita «D2030en markoan garatuko diren dinamika ezberdinetan parte hartzea, eta norbere erakundearen parte hartzea eskatzen duten proiektuen garapenean aktiboki inplikatzeko» ere. Horregatik, egokitzen jotzen da lankidetzak hitzarmen hau sinatzea, identifikatutako proiektu estrategikoko horietako bat gauzatzeko eta D2030en helburuetan laguntzeko.

Aurrekoaren arabera, eta kontuan hartuta lankidetzak hitzarmen baten esparruan finantza konpromisoak hainbat modalitate bidez hartzeko aukera, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, dokumentu hau helburu horrekin eta “D2030 EGITASMOA SUSTATZEKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN” 2.7 atalean hartutako konpromisoaren arabera egituratzen da, zeinaren arabera administrazioek konpromisoa hartzen baitute «*Erakunde bakoitzaren ezaugarri eta*

ahalmenen arabera, D2030 egitasmoaren prozesu nahiz portfolioaren finantzaziorako ekarpen ekonomikoak egiteko», hori guztia Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta hori garatzeko aplikatu beharreko araudiaren xedapenak betez. Konkretuki 22.2,c atalak dioen baldintzak betetzen dira

- X. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47.2 artikuluan ezartzen duenez, administrazio arteko hitzarmenak izango dira “administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazio arteko hitzarmenak, edo administrazio publiko diferenteei lotutako edo haien mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate biren edo gehiagoren artean sinatutakoak. Hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko baten edo lotutako edo mendeko organismo publiko edo zuzenbide publikoko entitate baten bitarteko, zerbitzu eta baliabideak erabiltzea, eskumen propioak edo delegatuak baliatzeko”.

Halaber, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Lege horren 48. artikuluan jasotzen da baita ere Administrazio Publikoarentzako konpromiso finantzarioak dakartzaten hitzarmenak sinatu ahal izango direla horiek kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen badute, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten badute, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezten laguntzen badute eta finantzarioki jasangarriak badira.

Horrez gain, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 6.1 artikuluan ezartzen denez, lege horren eremutik kanpo geratzen dira lege horretan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, besteak beste, toki entitateek elkarren artean egindakoak, eta kanpoan geratzeko baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu bokaziorik izango.
- b) Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzat bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.
- c) Lankidetzaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.

Sinatu beharreko hitzarmenaren edukia ikusita, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen baldintzak betetzen dira, administrazioen arteko lankidetzat hitzarmen baten aurrean gaudela adierazteko.

Ondorioz, inplikaturako aldeek **LANKIDETZA HITZARMEN** hau formalizatzen dute, administrazioen arteko eta erakunde pribatuekiko harremanak ezaugarritzen dituen lankidetzat eta elkarlan espirituarekin bat etorritat, klausula hauen arabera,

KLAUSULAK:

LEHENENGOA.- Xedea.

Hitzarmen honen xedea da IKASTETXEKLIK proiektua gauzatu eta finantzatzeko lankidetzaren esparrua ezartzea. Proiektua Oñatiko ikastetxe hauetan garatuko da:

- Oñatiko Institutua BHI.
- Elkar Hezi Ikastetxea.

Ikastetxeetan energiaren aurrezkiak eta eraginkortasuna sustatzeko proiektua da, hezkuntza komunitate osoarekin lankidetzan eta parte-hartze aktiboan oinarritua.

BIGARRENA.- Proiektua garatzeko kudeaketan eta finantzaketan laguntzea. Aldeen betebeharrak.

Aldeek adierazten dute interesa dutela lankidetzaren mekanismo espezifikoak ezartzeko, batez ere LEHENENGO atalean deskribatutako funtsezko jardueretan, ingurumen jasangarritasunari eta berrikuntza teknologikoari dagokienez duten garrantziagatik, Debagoienaren etorkizuneko energia kontsumoan eta egoera energetikoan eragin ditzaketen inpaktua dela eta.

Hori esanda, proiektua betetzeko, aldeek konpromisoa hartzen dute jarduerak egiteko:

I.- "IKASTETXEKLIK" proiektuaren helburuak betetzeko aurrekontua 42.540,97 eurokoa da, BEZ barne.

GIZABIDEA sozietateak zati batean ordainduko ditu proiektua aurrera eramateak sortzen dituen gastuak, bere funtsak emanez, 21.540,97 euroraino (BEZa barne).

II.-Oñatiko Udalak proiektuaren funtzionamendu-eta inbertsiogastuak finantzatuko ditu, GIZABIDEA elkarteari 3.500 euroko dirulaguntza emanez. Horretarako, adostutako ekarpena gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak gutziak egin beharko ditu.

III.Hitzarmen honetan xedatutakoarekin batera, GIZABIDEA Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian ezarritakoari lotuko zaio, bai eta laguntza emateko ebazpenaren ondoriozko beste edozein betebeharrak bereziki ere. Konkretuki 22.2,c atalak dioen baldintzak betetzen dira

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren helburuei lotutako beste jarduerak batzuk

Hitzarmen honetan aurreikusitakoaren esparruan, aldeek beste jarduerak mota batzuk egitea hitzartu ahal izango dute, beren eskumenen esparruan, batez ere beste administrazio publiko batzuek eta Fundazioaren Patronatuak eskatu dezaketenaren esparruan.

LAUGARRENA.- Hitzarmenetik eratorritako betebeharrak ekonomikoak finantzatzea

I.- GIZABIDEAK proiektuaren garapenerako ondorioz sortutako gastuen zati bat ordainduko du, bere funts propioak jarriz, 21.540,91 euro arte (BEZa barne).

II.- Oñatiko Udalak proiektuaren funtzionamendu eta inbertsio gastuak finantzatuko ditu, GIZABIDEARI 3.500 euroko dirulaguntza zuzena emanez, interes publikoko arrazoiengatik. Horretarako, adostutako ekarpena gauzatzeko behar diren jarduerak gutziak egin beharko dira.

III.- Hitzarmen honetan xedatutakoarekin batera, GIZABIDEAK Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzeko araudian ezarritakoa bete beharko du, baita laguntza emateko ebazpenaren ondoriozko beste edozein betebeharrak espezifikoki ere. Konkretuki 22.2,c atalak dioen baldintzak betetzen dira.

LAUGARRENA bis.- Ordainketa eta justifikazio era.

Dirulaguntza ordaintzeko era izango da:

I. Zehaztutako kopuruaren %40 ordainduko da hitzarmena sinatzean; baldin eta aurkezten badira ondoko dokumentuak, udal zerbitzuek egiazta ditzaten:

- a) Zerga obligazioen eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.
- b) Ordainketa egingo den kontuaren titulartasun agiria.

II. Gainontzeko %60a ordainduko da proiektuaren amaierako Memoria aurkeztutakoan eta udal zerbitzuek Memoria hori ontzat emandakoan. Memoria aurkezteko hilabeteko epea izango du eta ondoko dokumentuak jaso beharko ditu:

- a) Proiektu osoaren exekuzio-memoria. Azpi atal zehatz baten jasoko dira Oñatiko ikastetxeekin egindako lanak.
- b) Memoria ekonomikoa: Proiektu osoaren memoria, bai gastuei dagokionez, baita diru sarrerei dagokionez ere.
- c) Zuritzen diren gastuen fakturak.
- d) Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzako ordainketetan egunean egotearen ziurtagiri eguneratua.
- e) Adierazpen erantzulea dokumentu guztiak egiazkoa direla.

BOSGARRENA.- Jarraipen batzordea

I.- Hitzarmen honetan aurreikusitakoaren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratu da. Batzordea Gizabidea eta Oñatiko Udaleko kidek osatuko dute, eta alde bakoitzak kide bana izendatuko ditu. Batzordeko lehendakaria Administrazioaren ordezkarietako bat izango da, eta GIZABIDEAKO ordezkarietako bat izango da idazkaria.

Akordioak botoen gehiengoarekin hartuko dira.

Berdinketa gertatuz gero, Batzordeko lehendakariak bere kalitate botoarekin ebatziko ditu akordioak.

Jarraipen eta Kontrol Batzordeko idazkariaren eginkizunak izango dituen pertsona bileretara joango da eta eztabaidetan parte hartuko du, hitzarekin eta botoarekin.

Jarraipen eta Kontrol Batzordearen akordioak aktan jasoko dira.

Batzordearen bilerak lehendakariak deituko ditu, eta lehendakaria eta idazkaria edo, hala badagokio, horien ordezkariak eta kideen erdiak, gutxienez, bertaratzea eskatuko da, aurrez aurre edo urrutitik.

Nolanahi ere, Jarraipen eta Kontrol Batzordea, akordio honetan xedatutakoak ez ezik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako funtzionamendu arauak ere arautuko dute.

II.- Jarraipen Batzordeak, besteak beste, honako egiteko hauek izango ditu:

- Hitzarmenean erabakitakoaren kudeaketa, jarraipena, zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenetik eratorritako interpretazio eta betetze arazoak konpontzea.
- Egokitzat jotzen dituen hobekuntzak eta aldaketak formalizatzea proposatzea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzean, adostutako jarduerak eta justifikazio dokumentazioa egiaztatzeko dagokion akta egitea.

Hitzarmenaren funtsezko aldaketarik ez dakarten aldaketa teknikoak Jarraipen Batzordeak berak erabaki ahal izango ditu.

Jarraipen Batzorde Teknikoa, oro har, urtean behin elkartuko da, eta, ohiz kanpo, edozein kidek eskatuta.

Bilerak bitarteko telematikoen bidez egin ahal izango dira.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia

I.- Hitzarmen hau alderdien baimenarekin perfektionatu da, eta estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organo eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikoa (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen da) formalizatu eta 5 egun balioduneko epean inskribatu ondoren izango da eraginkorra. Halaber, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da, formalizatu eta 10 egun balioduneko epean.

II.- Lehen aipatutako 40/2015 Legearen 49.h) artikulua arabera, hitzarmen 2023. urteko indarraldia izango du. Aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez, edo hitzarmena amaitzea.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmen honen edukia aldatu ahal izango da, bi aldeak ados jarrita, hitzarmenaren garapenaren eta enplegurako lanbide heziketako sistemaren araudian egin litezkeen arau aldaketan arabera beharrezkoak diren alderdietan.

ZORTZIGARRENA.- Emaitzen jabetza eta ustiapena. Jabetza industrialia eta intelektuala.

I.- Aldeek alde aurretik zituzten jabetza intelektualeko eta industrialeko eskubideen titularrak izaten jarraituko dute.

II.- Aldeak, jabetza erregimenean, Hitzarmen honetatik eratorritako emaitzen titularrak izango dira.

III.- Alde bakoitzak askatasunez ustiatu ditzake emaitzak, legerian aurreikusitako muga bakarrekin. Halaber, Aldeek jabetza arautzeko akordio bat sinatu ahal izango dute, hemen aurreikusitako jabetza zehaztasun handiagoz arautzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Datu pertsonalen babesa.

Sinatzen duten aldeek konpromisoa hartzen dute Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB), datu pertsonalen tratamenduan pertsona fisikoen babesari buruzkoan, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta

Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko.

HAMARGARRENA.- Aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzetik eratorritako ondorioak.

I.- Hitzarmenaren sinatzaile batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea hitzarmena suntsiarazteko arrazoia izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmena sinatu duten aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu horren berri emango zaio Jarraipen Batzorde Teknikoari.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinarazi beharko du, eta, horren ondoren, hitzarmena suntsituzat joko da.

Hitzarmena ez betetzeagatik suntsiarazteak egiaztatuta geratzen diren kalteen kalte ordaina ekarri ahal izango du.

II.- Betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea ekimen honen sinatzailearen bat banantzearen ondorioz gertatzen bada, hark dagokion kalte ordaina hartu beharko du bere gain, betetzen ari den aldeari eta bertan jarraitzen duten hitzarmenaren gainerako sinatzaileei kaltegabetsuna bermatzeko, eta, nolahi ere, eta adierazpen gisa eta ez mugatzaile gisa, zerbitzuaren xedean egon daitekeen murrizketagatik esleipendunari legezkiokoen kalte ordainak, baita gainerako partaideei gehiegizko karga ekonomikoak eragiteagatik eta abarregatik ere dagozkienak ere.

Betebeharrak ez betetzearen ondorioz hitzarmena suntsiarazteko arrazoia badago, hurrengo klausulan xedatutakoari jarraituko zaio.

HAMAIKAGARRENA.- Hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko arrazoiak.

I.- Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xedeko jarduerak betetzen direlako edo suntsiarazteko arrazoia dagoelako.

Hauek dira suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea, luzatzea erabaki gabe.
- b) Sinatzaile guztien aho bateko akordioa.
- c) Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu horretan, aldeetako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio bete ez duen aldeari, bi hilabeteko epean bete ez direla uste diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordeko lehendakariari eta beste alde sinatzaileari jakinaraziko zaie.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren, salatu den ez-betetzeak jarraitzen badu, hura abiarazi zuen aldeak suntsiarazteko arrazoia dagoela jakinaraziko dio beste alde sinatzaileari suntsiarazteko arrazoia gertatu dela, eta hitzarmena suntsituzat joko da.

- d) Hitzarmena nulua dela deklaratzeko duen erabaki judizialagatik.
- e) Hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita ez dagoen beste edozein arrazoirengatik.

II.- Hitzarmena bete eta/edo suntsiarazi ondoren, likidazioa egingo da, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak bete diren zehazteko.

- a) Likidaziotik ondorioztatzen bada alderen batek gauzatutako jardueren zenbatekoa txikiagoa dela alde horrek hitzarmenaren gainerako aldeengandik exekuzioa finantzatzeko jaso zituen funtsak baino, alde hark beste aldeetako bakoitzari dagokion soberakina itzuli beharko die, likidazioa onartzen denetik gehienez hilabeteko epean.

Aurreko paragrafoan aipatutako gehieneko hilabeteko epea igaro eta itzulketarik egin ez bada, itzulketa horri aplika dakiokkeen berandutze interesa ordaindu beharko zaie beste aldeei, hori ere hilabeteko epean, une horretatik zenbatzen hasita. Interes hori, nolahi ere, gastu publikoa eta sektore publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa arautzen dituzten xedapen orokorren ondoriozkoa izango da.

- b) Handiagoa bada, hitzarmenaren gainerako aldeek, likidazioa onartzen denetik hilabeteko epean, dagokion aldeari ordaindu beharko diote bakoitzari dagokion zatia, alde bakoitzak hitzarmenaren arabera emango zituela hitz emandako zenbatekoen gehieneko mugarekin. Diferentzia auditoria txostenetik abiatuta kalkulatu da, suntsiarazpenaren egunera arte garatutako jarduerak kontuan hartuta. Hitzarmeneko aldeek ez dute inolako eskubiderik izango gainerakoei gehieneko muga horiek gainditzen dituen zenbatekorik eskatzeko.

HAMABIGARRENA.- Datuen konfidentzialtasuna eta babesa

Udalak eta GIZABIDEAK konpromisoa hartzen dute beren jardueraren ondorioz eskura ditzaketen informazio eta datuen izaera konfidentziala errespetatzeko, eta lehen aipatutako Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubideen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako manuak betetzeko betebeharra dute

HAMAHIRUGARRENA.- Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio aplikagarria

Lankidetzak Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Lankidetzak hitzarmen hau garatu eta gauzatzean aldean artean sortzen diren auziak, akordioa formalizatzeko dokumentu honen bosgarren klausulan aurreikusitako Jarraipen eta Kontrol Batzordeak konpondu ezin baditu, Espainiako administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Ados daudela erakusteko, lankidetzak hitzarmen hau alde biek sinatzen dute, sinadura digitalean ageri den datan.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SINA9a886909-ad9a-4753-9669-f63f14acc64b**

Dokumentu elektronikoa honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

"Ikastetxeklik" garatzeko eta finantzatzeko lankidetzaren hitzarmena

CSV/EKS:

SINA9a886909-ad9a-4753-9669-f63f14acc64b